

465 zenbakia, 2001eko irailaren 21a
JARDUN ELKARTEA

Bergara argazkariak

Berrigara



NAZIOARTEKO ARGAZKILARIAK
Kultura etxean irailaren 21etik 30era

Andoni Etxeberria: Pasaiatik Galiziarra larruzko itsasontzian **Futbito txapelketa**: 31 talde lehiatzen



AUTOAK SORTU EGITEN DITUGU

RENAULT

Laguna Grand Tour

Berritasuna eta segurtasuna
prezio berezietan



Dynamique 1.8 16V (123 ZP). Pintura metalizatua
3.635.000 pta*

Dynamique 1.9 DCI (120 ZP). Pintura metalizatua
3.960.000 pta*

Expression 1.9 DCI (110 ZP). Pintura metalizatua
3.690.000 pta*

Privilege 1.8 16V (123 ZP). Pintura metalizatua eta 8 aire-poltsa
3.900.000 pta*

Dynamique 1.8 16V (123 ZP). Pintura metalizatua, 8 aire-poltsa eta CD kargagailua
3.745.000 pta*

*Stockean dauden autoak.

MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. **BERGARA.** Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. **ARRASATE.** Tel.: 943 71 24 72



Ametsak eta amesgaiztoak

ANTONIO ZABALA

Ez dut ukatuko betidanik ikuskizunaren mundua gustuko izan dudala: zinema, antzerkia, musikalak, jazza eta abar. Eta zaletasun horren ondorioz, beti izan dut New York hiria bisitatzeko ametsa. Hiri honek niretzat beti izan du kutsu magiko eta mitiko bat. Nahiz eta Hollywood izan zinemaren gunea, New York izan da zinemaren hiria: zazpigarren arteak jakin izan baitu erretratzen guztiz distiratsua, *King Kong*, *Zu eta biok*, *Manhattan*, *Gosaria diamanteekin* eta hainbat titulutan. Horregatik, uda honetan, bertan izan garenean, eta toki eta eraikin guztiak topatzerakoan: Askatasunaren Estatua, Bosgarren Hiri-bidea, Central Park edo Empire State ikusterakoan, ez gara kikilduta sentitu hiriaren mugagabetasunarekin, ikusten dituzun lekuek lehendik ezagutzen dituzula ematen dutelako. Horrela, New York hara eta hona gelditu gabe dabilen hiri lasaia bihurtzen zaigu: taxi horiz beteta, leku batetik bestera doan arraza eta ezaugarri desberdinetako jendearekin, baina inoiz estututa edo arriskuan sentitu gabe.

Eta turista gehienek egin ohi duten bezala, Dorre Bikietan izan ginen, bigarren dorrean hain zuzen ere. Minutu baten, sarreran dagoen igogailuak eraikinaren gailurreraino eramaten zaitu. Bertatik, jendez beterik dagoen eta ia-ia zeruraino heltzen den etxe-orrazetatik, kalean dabilen jendeak eta autoek inurriak dirudite. Baina, bi aste geroago eta momentu batean, dorreak desagertu egin dira, eta horiekin batera hantxe zeuden milaka biztanleen ilusioak eta bizitzak. Kolpe batez, New Yorkeko oroitzapen onak hunkidura izugarri bihurtzen dira. Zinemako hiri horrek, ia-ia garaitezina zirudienak, kolokan egiten du, eta ikusten dugu egindako sarraskiaren bitartez nola ametsak amesgaizto bihurtzen diren: kru-

delegia eta errealegia den amesgaizto hain zuzen ere. Gainera, komunikabideetan entzuten diren deklarazioak (Guda Santua, Askatasunaren Estatua, eta abar) kontuan izanik, ematen du orain arte izandako min eta txundidurak ez direla istorioaren eta amesgaiztoaren bukaera, hasiera

baizik: New York baino *glamour* gutxiago duten gizaki eta hirien desegitearen hasiera.

Eta lerro hauetan ametsi buruz idazten aritu naizenez, Donostiako Zinemaldiarekin loturiko amets inuzente xamarra baina polita botako dut: Donostiako edozein zine aretoan elkartuta topatzea Bush, Bin Laden eta munduan dauden bortizkeriazale guztiak, Frak Borzage-ren film zoragarri bat ikusten. Bere izenburua: *Agur armei.*<

«New Yorkek, zinemako hiri ia-ia garaitezkin horrek, kolokan egin du; sarraskiaren bitartez ametsak amesgaizto bihurtu dira»



CRISTINA GARCIANDIA
Dermatologoa

«Jendeak uste du udazken partean ilea gehiago jausten zaigula, baina ez da horrela» **11.**



ANDONI ETXEBERRIA
Galiziaruntz espedizioko kidea

«Galiziarako zeharkaldirako, ordu asko pasatu genuen larruzko itsasontzia egiten» **12.**



JOSE LUIS GABILONDO
Kateako langilea

«Zirkulaziño seiñale danak errespetatzen ditudut, baina danon moduan, despisteren bat izan dot inoiz » **19.**

hi, gazte!



BEKAK
Unibertsitatean ez dihardutenendako ikasketa-bekak. Eusko Jaurlaritza.
 Epea: urriak 6.
Bi ikerketa-beka. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gure lurraldeari buruzko azterketa historikoak egiteko. Lizentziadunendako. Epea: urriak 20.
SHEE/IVEFeko ikasleendako lanikideta-bekak. Eusko Jaurlaritza.
 Epea: urriak 6.

IKASTAROK
Efektu bereziak eta makillaje/efektu bereziak. Sorginkoba elkarte.
 Epea: irailak 24.
Ingurumen Zuzenbideko urrutiko masterra. Eusko Ikaskuntza.
 Epea: irailak 30.
Finantza-merkatuei buruzko urrutiko ikastaroa. Eusko Ikaskuntza.
 Epea: urriak 15.

SARIAK
Ekintzaileen II. Lehiaketa. Interneteko enpresa-proiektu onenak sarituko dituzte. Kutxak eta Miramon Enpresa Digitalak antolatua. Epea: irailaren 30ean bukatuko da.
Indalecio Ojanguren XIV. Argazki Lehiaketa. Eibarko Udala. Gai libre.
 Epea: urriak 31.

LANA
Bi lorezain ofizial. Bergarako Udala. Eskola graduatua. Epea: irailak 27.
Askotariko zerbitzuetarako bi plaza. Orioko Udala. Eskolatzeko-ziurtagiria eta euskarako 2. hizkuntza-eskakizuna.
 Epea: irailak 25.
Erizaintzako laguntzailea. Zallako Eguzki Egoitza. Lan-kontratu finkoa. Osasun arloan lehen mailako lanbide heziketa. Epea: irailak 24.

Administrari laguntzailea. Sopolako Udala. Lehen mailako lanbide-heziketa, eskola graduatua edo baliokideren bat.
 Epea: irailak 24.
Administrari laguntzailea. Izaga gizarte zerbitzu oinarrikoen mankomunitatea. Epea: irailak 28.

KARNETAK
 Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatorz
 Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:
BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak.
 Telefonoa: 943 77 91 57.
 E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
 Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00.
 Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke **Gazte Informazio Gunera** igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazte-ehi nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. **Mila esker.**

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



Oiñeztarrixa

Tximista.

– *Bentanatik sartuta atetik urten zan oiñeztarrixa.*

– *Neskia il zan Uberan oiñeztarrixak jota.*

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Irailak 13, eguena	24 °C	7 °C	4,5 l/m ²
Irailak 14, egubakoitza	17 °C	15 °C	2,9 l/m ²
Irailak 15, zapatua	20 °C	13 °C	– l/m ²
Irailak 16, domeka	20 °C	8 °C	0,3 l/m ²
Irailak 17, astelehena	16 °C	9 °C	6,1 l/m ²
Irailak 18, martitzena	17 °C	10 °C	– l/m ²
Irailak 19, eguaztena	24 °C	6 °C	– l/m ²

mezak

Santa Marina
 Domekak: 11:30, 13:00.
 Zapatuak: 19:00.

San Pedro
 Domekak: 09:30, 12:30.
 Zapatuak eta lanegunak: 19:15.

Sierbak
 Lanegunak: 19:30.

Osintxu
 Domekak: 11:30.
 Zapatuak: 19:00.

Elosu
 Domekak: 10:30.

Ubera
 Domekak: 10:30.

San Juan
 Domekak: 11:00.

San Prudentzio
 Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK
Santa Marina
 Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro
 Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegarieta
 Domekak: 11:00.

San Lorenzo
 Zapatuak: 20:00.

Angiozar
 Domekak: 11:00.

Monja Zaharrak
 Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde
 Lanegunak: 11:45.
 Zapatuak: 17:30.

Antzuola
 Domekak: 09:00, 11:30.

San Juan
 Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga
 Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandir itteerak

Domekak: 07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluez aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarrenetik itteerak
 07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 21:

CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

ZAPATUA 22:

PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

DOMEKA 23:

PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

ASTELEHENA 24:

GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

MARTITZENA 25:

ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

EGUAZTENA 26:

MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

EGUENA 27:

CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

OGIA

DOMEKA 23. Mizpildi

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa. 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa. 943 76 62 46

Ertzaintza. 943 76 53 40

Osasun Etxea. 943 76 24 40

Asepeyo. 943 76 16 43

Pakea. 943 76 13 49

Angiozarko medikua. 943 78 90 27

Antzuolako medikua. 943 76 62 23

Odol emaleak. 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak. 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak. 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea. 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea. 943 76 62 46

Udal Artxiboa. 943 77 91 32

Igerilekuak. 943 76 20 51

Kultur Etxea. 943 77 91 58

Liburutegia. 943 77 91 62

Kiroldegia. 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza. 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia. 943 76 14 92

Erregistroa. 943 76 13 15

Jardun. 943 76 36 61

Idolaz. 943 76 65 08

Jubilatuena Etxea. Bergara. 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71

Postetxea. 943 76 26 85

Bedelkar. 943 76 04 68

Akulu AEK. 943 76 05 18

Udal euskaltegia. 943 76 44 53

Bergarako notaritza. 943 76 10 73

oharrak

■ **1948an jaiotako enafaria**
irailaren 29an Osintxuko Txuringon. Osintxura joateko, autobusa frontoitik, 21:00etan. Izena ematea (6.700 pezeta) Euskadi Kutzan.

■ **1961n jaiotako enafaria**
urriaren 6an Tartufon. Izena ematea (1.000 pezetako depositoa) Dixula eta Nahikari tabernetan.

■ **Asisko San Frantziskoren**

omenezko bederatziruena irailaren 26tik urriaren 4ra bitartean Moja Zaharretan, 19:00etan.

■ **Bergarako Batasunak** dei egiten du martitzenean, hilak 25, 19:00etan Elementaleko aretoan egingo den herri batzarrean parte hartzeko.

■ **Kutxa Aulak** antolatutako ikastaroak: internet, sukaldaritza, aretoko dantza eta beste hainbat. Argibideak Bergarako Kutxako bulegoetan.

zozketak

■ **Bergarako Amnistiaren**

aldeko mugimenduaren
tonbolan honako zenbakiak izan dira sarituak: 1.454 (mikrouhin-labea), 2.500 (erlojua), 2.187 (irradi-kaseta), 2.071 (AABen materiala), 7.481 zenbakia (telebista), 7.001 (maleta sorta), 6.018 (aspiragailua) eta 7.500 (AABen materiala). Sariak jasotzeko epea 30 egunekoa da.

zorionak!



Maider Mujika
25ean urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Silvia Sebastian
22an 8 urte. Urte askotarako! Gurasoak, aitona-amonak eta izaba Alizia.



Garazi Marzo
26an 2 urte.
Urte askotarako!
Aitaxo eta amatxo.



Aitor Zabaleta
22an 3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Irati Fernandez
21ean 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Alazne Jauregi
27an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Inigo Agirre
27an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak; bereziki, Joseba eta Andoni.



Amaia Mendibil
24an 14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Eider Velez de Mendizabal
25ean 22 urte.
Urte askotarako!
Lagunak.



Ainhoa Sainz
23an 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta ahizpa Nuria.



Ainhoa Aranburu
21ean 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Jone.



Martina Irazola
25ean urtebetetzea.
Urte askotarako!
Andoni, Jone eta Ainhoa.



Irati Arantzabal
22an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak; bereziki, Eider.



Nerea Najera
21ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Ainhoa Larrañaga
22an 27 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

Hurrengo alean, irailaren 28tik urriaren 4ra bitarteko enafari zorion agurrak argitaratuko ditugu.

jardunen agenda



■ **Jolasleku ibiltaria:** Lehen Hezkuntzako neska-mutikoei zuzendutako jolasak. Irailaren 21ean Usondo parkean, irailaren 28an Udal pilotalekuan eta urriaren 5ean Espoioan.

■ **Trikiti eskola: panderoa eta soinua:** Urriaren 1etik ekainaren 22ra. Kartzela zaharrean. Panderoa, 1.900 pezeta (hileko kuota) eta soinua 2.650 pta. (hileko kuota).

■ **Eskulanak:** Urriaren 1etik maiatzaren 27ra Kartzela zaharrean. Urteko kuota: 5.000 pezeta (6.000 bazkide ez direnek).

gutunak

Bergarako Amnistiaren Aldeko Batzardeak, presoen aldeko tonbolarako sariak eman dituzuen denda, tabernari, elkarte, lantegi eta herritarrei eskerrak eman nahi dizkizue; baita ere gauzatzen lagundu duzuen guztioi eta, azkenik, jokatzeko ibili zaretenoi. Atera den dirua dispertsioak dakarren gastuen zati bati aurre egiteko izango da.

Amnistiaren Aldeko Batzardea

- 📖 Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- 📖 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- 📖 Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63



ile apaindegia
edertze gela

— disdira —

Masterreka, 7 • Tf. 943 76 00 55

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

Irala 3
Telefonoa:
943 76 48 26



IRRINTZI
kafetegia

ezpeleta
Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/TF. eta faxa: 943 76 17 09

Ariznoa

gimnasia erritmiko taldea



Irailaren 17an gimnasia erritmikoko denboraldia hasi zen. Kirol polit honetan interesatuta dauden 6 urtetik gorako neskek, dei dezatela telefono hauetara informazioa jasotzeko: 943 76 12 84 (Margari) eta 943 76 56 75 (Jabi).

Klaseak BERGARAN: martitzen, eguen eta eguakitzetan. 18:00etan

Boni Laskurain pasealekuko Aranzadi ikastolako gimnasioan.

Klaseak ANTZUOLAN: martitzen, eguazten eta eguenetan

GIMNASIA



Aupa neskek, anima zaitetze! Zuen zain gaude!

.....Berrigara Gida 2002

Berrigara Gida 2002, Bergara, Antzuola eta Elgetako telefonoen gida prestatzen dihardugu.

Uxue Zabaleta (argazkian)

aritutako da komertzial lanetan eta dendari, ostalari, lantegi edota profesionalen telefonoak jasoko ditu.



Aurten ere intereseko telefonoak, komertzioenak eta partikularrenak jasoko ditu urte hasieran kaleratuko dugun Berrigara Gida 2001 liburuxtoak:

Bergara, Antzuola eta Elgetako ia telefono guztiak.

Iazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi baduzu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzea eskertuko genizuke:

943 76 03 97.

Berrigara

Haziendak Gipuzkoako balio katastralak berrikusi egin ditu

Horrek eragin zuzena izango du 2002an ordaindu beharreko kontribuzioan

2002. urtean balio katas-tral berriak ezarriko dituzte Gipuzkoako udal-erri guztietan, Bergara barne. Horrek eragin zuzena izango du datorren urtean ordaindu beharko dugun Ondasun Higiezin-en Gaineko Zergan (kontribuzioan). Herritar batzuek orain arte baino gehiago ordaindu behar-ko dute, eta beste batzuek, gutxiago.

Gipuzkoako Foru Ogasuneko arduradunek balio katastralak berrikusi eta berriak ezarriko dituzte 2002an. Gaur egun ezarrita zegoen balio katas-trala due-la hogeita bost urtekoa zen; berrikuspenaren helburua da balio katas-trala gaur egungo merkatuak ezartzen dituen balioetara hurbiltzea.

ZONALDEKAKO BANAKETA

Balio katastralak etxebizitza, garaje, etxabe komertzial eta industrietan eragiten du, besteak beste, eta balio katas-tral berriak oso kontuan hartuko du eraikin horiek herriko zein eremutan dauden. Baserriei ere eragingo die. Ondasunaren



Ondasuna herriko zein eremutan dagoen hartuko du kontuan balio katas-tral berriak.

ARTXIBOA

berezko baloreaz gain, hortaz, kokapenak ere garrantzi berezia izango du. Ez du balio bera izango Ibargarai-ko etxebizitza batek edo Simon Arrietako beste batek, balio katastralak herria eremutan banatu eta bakoitzari balio bat ematen diolako. Horren ondorioz, herritar batzuek orain arte baino gehiago ordaindu beharko dute kontribuzioa, eta beste batzuek, gutxiago.

Balio katastralak, hortaz, eragin zuzena izango du herriarrongan. Izan ere, kontribuzioa ordaintzeko oinarria da: Udalak balio katas-tralaren arabera kontribuzioa kobratzen du, betiere, ondasun higiezinak Haziendak baloratu ostean. Udalaren ardura kontribuzioa kobratzeko tipoak ezartzea da. Aurten, tipoa jaitsi egin du, eta, bi tipo ezarri: %0,16 hiriguneetarako eta %0,3 in-

dustriaguneetarako.

Haziendak, balio katas-trala kontuan hartuz, hasierako katastroa osatuko du, eta herritar bakoitzari aditza emango dio urritik aurrera. Interesatuek balioak errebisatu eta alegazioak aurkezteko aukera izango dute. Notifikazioan 2002ko balio katas-trala, aurten ordaindutako kontribuzioa eta 2002an ordaindu beharreko kontribuzioa agertuko dira.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerrek 13 behea ☎ 943 76 55 00



Prest dago San Joxeperen V. Kultura hamabostaldia

San Joxepe erretiratu eta pentsiodunen elkarteak prest du dagoeneko, kultura hamabostaldia. Aurten hamabostaldiaren bosgarren aldia da, eta urtero gisa gai nagusi baten inguruan antolatu dute: "Nagusien zeregina gaur egungo gizartean".

Kultura hamabostaldia urriaren 8an hasiko da, eta 27ra arte hainbat ekitaldi izango dira: hitzaldiak, mahai inguruak, musika emaldiak, mendi irteerak...

Urriaren 8an, esaterako, "Gaurko eta geroko nagusien analisi soziologikoa" hitzaldia eskainiko du Javier Elzo EHuko soziologia irakasleak, Miguel Altuna institutuan. Horri, beste hiru hitzaldik jarraituko diote: urriaren 16an, Javier Yan-



laz, 1.700 pertsona inguruk hartu zuten parte hamabostaldiko ekitaldietan.

guas psikologoak XXI. mendeko nagusien erronkaz hitz egingo du. Urriaren 18an, nagusiek Gipuzkoako gizarte politiketan nola parte hartzen duten aztertuko du Gizartekintzako diputatu Maximo Goikoetxeak, eta

urriaren 23an, partehartzearen erronkaz jardungo du Mercé Pérezek, SERDOM proiektuko zuzendariak.

Bestelako ekitaldiei dagokienez, Edu Muriamen-diarazen dantza ikuskizuna egongo da urriaren 19an.

Hainbat kale asfaltatuko dituzte

Hainbat kale asfaltatzeko baldintzak onartu ditu Udalak. Kale hauek hain zuzen: Irizar, Fraiskozuri, Ibargarai, Martoko, Urteaga, Espaloia, Madalena plaza, San Martzialerako bidegurutzea eta Boni Laskurain. Aurrekontua 18.704.000 pezetakoa da.

Kale garbiketarako Cesparen ardura

Herriko kaleak garbitzeaz Cespa SA enpresa arduratuko da, aurrerantzean. Udalak lehiaketara atera zuen kale garbiketa zerbitzua, eta aipatutako enpresari esleituko dio.

Jardunek gaur hasiko du jolasleku ibiltaria

Ekainean egin bezala, jolasleku ibiltaria antolatu du Jardunek. Bost eta hamar urte bitarteko neska-mutikoei dago zuzenduta, eta helburua, euskaraz berba eginez, horiei, ondo pasatzeko aukera eskaintzea da. Horretarako hiru jolas gune eta hiru egubakoitz aukeratu dituzte. Lehenengo jolaslekua gaur izango da, Usondo parkean. Bigarrena hilaren 28an, Fraiskozuri plazan eta hirugarrena, urriaren 5ean, Espaloian. Guztiak 17:00etatik 19:00etara izango dira, eta bost begirale arduratuko dira jokoez.



IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA.

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

Ganbara TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

iRUDI
Erloju denda
Bitsitegia
Ibargarai, 2
943 76 51 65

Trinitateko komentuaren bi armarriak berrituko dituzte

Trinitateko komentuaren aurrealdeko horman dauden bi armarriak zaharberritzeko erabakia hartu du Gobernu Batzordeak. Armarriak nahiko egoera kaskarrean daude, eta hainbat zati galduta. Zaharberritze lanak urrian hasiko dira, eta lehenengo, armarriak garbitu egingo dituzte, ondoren harria gogortzeko. Lanen aurrekontua bi milioi eta erditik gorakoa da.

Bi armarrien berritze lanez Eudald Gillamet izen handiko zaharberritzailea arduratuko da, Eginu Mailea etxea berritzeaz arduratu zen berbera.

INDUSKETAK OSINTXUN

Irailaren 25ean hasiko dira Aranzadi Zientzia elkarteko adituak Osintxuko tailer zaharrean indusketak egiten. Izan ere, han, XVI. mendeko ermita bat egon liteke. Eta horixe da, hain zuzen ere, indusketa lanak egiteko arrazoia.



Eudald Gillamet Eginu Mailea zaharberritu zuen adituak egingo du lana.

Dagoen dokumentazioaren arabera, Osintxuko eliza aurrean, erreka gaineko tailer zaharra dagoen tokian, ermita bat zegoen antzina. Tailerraren dokumentazioan ere, ermita baten gainean eraikita dagoela azaltzen da. Bestalde, hainbat dokumentutan, XVI. mendeko ermita baten inguruko aipamenak daude. Datu horiek tailerra aztertzea eraman zuten Udal Museologoa. Diputazioko

arkeologo baten laguntzaz, eraikina aztertu, eta antzina-ko horma zati bat eta kontrafuerte bat aurkitu zituzten. Aranzadikoek XVI. mendeko ermitari dagozkion frogatuko dute.

Arrastook dokumentuetako ermitari badagozkio, aurkikuntza garrantzitsua izango da, ez baitago Gipuzkoan XVI. mendeko ermita askorik. Bestalde, posible da garai hartako jendearen aztarnak ere aurkitzea.

Nagusi eta gazteen Orfeoiek abeslariak behar dituzte

Bergarako Orfeoiak eta Orfeoi Gazteak abeslariak behar dituzte. Bergarako Orfeoien kasuan, gizonezko eta emakumezkoak behar dira, baina gizonezkoak, batez ere. Orfeoi Gazteari dagokionez, berriz, hamahiru eta hamazortzi urte bitarteko neska-mutikoak behar dituzte.

Hori guztia dela eta, datoiren martitzenean, hilak 25, hautapen proba egingo dute Zabalgotegiko aretoan. Gazteendako proba 19:00etan hasiko da, eta nagusiagoena 21:00etan. Horrez guztiaz gain, probak guztiz zabalak izango dira.

Berrikuntzen artean, Aitzol Mujikak Orfeoi Gaztearen zuzendaritza utzi egingo du, eta aurrerantzean, David Azurzak, Bergarako Orfeoien zuzendariak, hartuko du Mujikak utziko duen kargua.

Dixula

**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95

AGOITZ

tapiz denda

Leizariako San Lorenzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

Samadhi Yoga



YOGOTERAPIAREN ETA ERLAXAZIOAREN
ZENTRUA

- Estresa eta tentsioak eragozteko
- Lorik egin ezina eta depresioa sendatzeko
 - Birikak eta odola garbitzeko
 - Odolaren zirkulazioa hobetzeko
- Bizkarrezurraren gaixotasunak osatzeko
 - Bizi energia handitzeko
- Hezurak eta gorputz osoa indartzeko

Kruz Gallastegi, 2-behea.
Tel. 639 235 753 / 943 76 11 38



BANKINTER

%3,5 etik aurrera lehen 6 hilabeteetan

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

*Irekiera komisioa:
%1.
35 urte biltaraino

Berrigara

465 zenbakia.
2001eko irailaren 21a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpideta: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate,
Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Peru Azkarate, Oihan Vega,
Usua Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Maitane Arizabaleta, Juan Martin
Elexpuru, Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.
Ezkerreko argazkia: Mamen Mari (zattia);
eskuakoa: Vladimir Proshin (zattia).

Tirada: 5.600 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adieraziko esanien eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

atrebentzia ezpada

Ze moduz eskolara bueltia? Pozik bueltau za?



Jokin Garitaonandia

Bueno, ez oso ondo,
oin etxeko lanak egin bihar
die-eta. Oporretan askoz
hobeto egoten da.



Markel Arenaza

Ez oso ondo. Oporretan
hobeto genden,
jolasten-eta. Ikastolara
bueltatzia lanak
egitteko-eta...



Ainhoa Linazisoro

Pozik bueltau naiz gustau
egitten jatelako. Gehixen
gustatzen jatena gimnasia
eta erdera die.



Katixa Linazisoro

Bai, ni be pozik bueltau
naiz. Gaiñera, ikastolan
lagunak egitten die.



Ander Barruso

Bueno, ba... bai eta ez.
Bai, lagunekin ibiltzen
naizelako; eta ez, ba, ikasi
egin bihar dotelako.



Oihane Arazkonaga

Pozik bueltau naiz, lanak
egitten oso ondo pasatzen
dotelako. Eta baita
lagunekin be.

tira biraka peru azkarate



adituen esanetan

Alopezia

Askok uste dute udazkenean ilea gehiago jausten zaigula, baina ez da horrela. Ilea eguneroko galtzen dugu (egunean 100 bat gal ditzakegu), etengabe birsortzen ari delako. Beraz, ez daukagu kezkatzeko arrazoirik udazkenean ilea jausteagatik. Guztiz normala da.

Gaurko gizartean jendea asko arduratzen da ilea jausten hasten zaionean, eta alopezia arazoak kontsulta ohikoenetakoak ditugu dermatologian.

Alopeziaz ari garenean, hiru dira alopezia mota arruntenak: alopezia lausotua deiturikoa, alopezia androgenikoa eta, azkenik, alopezia areata. Alopezia lausotuaren kasuan, buru-azal osoan galtzen da ilea, eta horren ondorioz ile bolumena gutxitzen doa. Alopezia lausotua agertzeko hainbat arrazoi dira: tiroideen alterazioak, diabetesa, bitaminen, kobreak eta zinkaren eskasia edota botikak (A bitamina edota hepatitis sendatzeko erabiltzen den interferona). Era berean, emakumeen kasuan, burdinaren faltagatik (hilekoaren ondorioz) eta sabelondoagatik ilea galtzea normala da. Dena den, alopezia lausotua agertzen denean ilea galtzeko arrazoia zein den jakinda, tratatu daiteke eta ilea berriz haziko da, sustraiak ez duelako minik jasaten.

Alopezia androgenikoa gizonezkoiei eragiten diena da (30 urtetik




CRISTINA GARCIA

Dermatologoa

«Jendeak uste du udazken partean ilea gehiago jausten zaigula, baina ez da horrela. Ilea etengabe ari da birsortzen»

gorakoen %30ek izaten du). Emakumei ere gero eta gehiago eragiten die (%5-10). Alopezia mota hau arrazoi genetikoengatik gertatzen da. Orain gutxira arte alopezia mota honi aurre egiteko modu bakarra minoxidil izeneko baso-zabaltzailea zen, baina sustantzia askoz ere eragingarriagoa (finasteride) aurkitu dute oraintsu. Eguneroko miligramo bateko pilula hartzen dugun bitartean, ez da ilea galtzen eta, antza denez, ez dauka bigarren mailako efekturik.

Bukatzeko, alopezia aretari buruz zera esan dezakegu: txanpon baten tamainako eremu alopezikoak sortzen dira buruan, bizarrean, besapeetan edo pubisean, baina ilea berriz hazten da normalean.



Alopezia androgenikoa gizonezkoiei eragiten diena da.

bergarako zuhaitzak



Intsusa, Santa Anako parkean.

Intsusa

Sambucus nigra

Hosto erorkorreko zuhaixka, noizbait zuhaitz izatera heltzen dena. Zurtoin irregularra du eta azala zartatua. Hostoak eliptikoak eta zerratuak dira, berde ilunak gainaldean eta argiagoak azpialdean. Adar puntetan udaberri bukaeran edo uda hasieran lore sorta zuri batzuk irteten zaizkio San Juan aldera: udazkenean txoriek jaten dituzten fruitu beltz eta biribilak ematen dituzten lore sortak.

Erreka ertzetan, baserri inguruan, mendi eta basoetako bide bazterretan eta abar aurki dezakegu. Baita gure lorategietan, apaingarri gisa landatua ere. Azkenengo urteetan lorategietarako hainbat aldaera ateratu dituztela, esate baterako, "Aurea" eta "Purpurea".

Euskal Herrian erabilera antz izan dituen eta dituen zuhaixka da. Horregatik, etxe ondoan edo baratzeetan landatzen zen, hasieran elikagai bezala eta ondoren sendagai gisa.

Fitoterapiari dagokionez, oso estimatua da. Esate baterako, intsusa hazten doan heinean, kanpoko azala zartatuz doa, eta barnekoa fina eta berdea da. Hau kenduz gero, erretrapuak egiteko balio du. Bere hostoekin egindako infusioa katarroari aurre egin eta zaurientzako pomadak egiteko balio dezake; loreak lehortuz gero, kutisarentzako, musuko orbanendako, hanturak jaisteko...eta azkenik fruituek, propietate laxanteak eta bitaminak dituzte.

Bestalde, intsektuak, saguak eta satorrak uxatzen ditu, eta inausitako adarrek erlamioen habia bezala balio dute.

Oso egur gogorra eta pisutsua du; kaxak, orraziak, txistuak eta gauza txiki ugari egiteko balio izan du.

Testua: Maitane Arizabaleta.

Andoni Etxeberria, Galiziaruntz espedizioko kidea

«Larruzko itsasontzi batean joan ginen Pasaiatik Galiziara»

Donostiara bizi izatera joateak itsasoarekiko zaletasuna piztu dio Andoniri. Eta, bereziki, itsasontzi tradizionallekiko zaletasuna. Horrela, Albaola elkarteko kide egin zen, eta, elkarteko beste zazpi lagunekin batera, abentura berezia izan du aurtengo udan. Pasaiatik Galiziara joan dira, eurek egindako larruzko itsasontzi batean.

Bidaia Pasaiako elkarte baten ekimena izan da. Zer elkarte da hori eta zer helburu dauzka?

E. Ni Donostian bizi naiz, eta Pasaiako Albaola elkarteko kide naiz. Elkarte horren helburuak dira, batez ere, itsasoaren ondarea berreskuratzea, gai horren gainean ikerketa egitea eta itsasontzi tradizionalak eraikitzea eta berreskuratzea. Bestetik, itsasoaren aspektu ludikoari etekina atera nahi dugu; hau da, itsasoak alderdi kompetitiboa eta lanaren aspektua dauzka, estropadak direla edo arrantza dela, baina aspektu ludikoa pixka bat baztertuta dago, eta elkartearen helburua da aspektu ludiko hori ere bultzatzea.

G. Zelan sortu zen bidaia egiteko ideia?

E. Iaz, uztailean, itsasontzi tradizionalen topaketa antolatu zuten Breitanian, eta hantxe izan ginen. Izugarria izan zen. 3.000 bat itsasontzi tradizional elkartu ziren. Han, harremanetan jarri ginen gure antzerako helburuak zituzten elkarteekin, eta, bereziki, irlandarrekin eta bretoiekin. Haiek hasita zeuden dagoeneko larruzko itsasontziekin zeharkaldiak egiten. Aurtengo proiektua Breitaniatik Galiziarako zeharkaldia egitea zen, Galizian ere, Combarron, hain justu, itsasontzi tradizionalen topaketa izan zelako, abuztuaren 23an hasita. Hortaz, egun horretarako iristea zen euren helburua. Horrela, proposatu ge-

nien Pasaian geldialdi ofiziala egitea Breitaniatik Galiziarako bidean. Baina pixkanaka-pixkanaka gu ere animatzen hasi ginen, eta erabaki genuen Pasaiatik Galiziarako etapa eurekin batera egitea.

G. Bidaiarako itsasontzia zuek egin zenuten. Orduantxe hasi zen abentura?

E. Bada, bai. Bretoiiek eta irlandarrekin bazituzten itsasontziak, baina guk ez geneukan ezer eginda. Maiatzean hasi ginen lanean, eta uztailean amaitu genuen. Itsasontziaren egitura egurrezkoa da, eta behi larruz forratuta dago. Lan handia izan genuen, ordu asko eman genituen itsasontzia egiten. Gainera, ez geneukan inolako esperientziarik, baina esan beharra dago laguntza handia izan dugula. Alde batetik, eskualdeko garapen agentziak, Oarsoaldeak, ontziola bat dauka, eta hantxe egin genuen itsasontzia. Horrez gain, hango adituen laguntza ere izan genuen.

Guk erabili dugun itsasontziaren antzekoak Jesukristo aurreko garaian ere erabiltzen ziren, zeharkaldi laburrak egiteko, batez ere. Monje zeltek, esaterako, kolonizaziorako zeharkaldiak egiteko, era horretako itsasontziak erabiltzen zituzten. Bestalde, badago elezahar bat esaten duena Jesukristo aurreko 383. urtean, euskaldun flota bat irten zela larruzko ontzietan Irlanda kolonizatzeke asmoz, eta Orcadas irlertara iritsi ei ziren. Flota horretako buru-


zagia Bartolome izeneko gizon bat ei zen; horregatik jarri genion Bartolome izena itsasontziari.

G. Uztailean 31n itsasoratu zineten.

E. Bai, eta 23 egun egin genituen Galiziaraino. Hiru itsasontzitan joan ginen. Bretoiena eta irlandarrena handiagoak dira, gurea txikiena da, zazpi metro luze ditu. Gainera, euren itsasontziek motorra zuten, badaezpada ere. Gureak, berriz, ez. Hori dela eta, gu ez ginen itsaso barru-barrura sartzen, asko jota lau bat kilometro-edo. Euskal Herriatik zortzi lagun joan ginen, bost lagun itsasontziz eta beste hiru lehorrez. Tarteka txandatu egiten ginen. Bretoiak eta irlandarrak kontuan hartuta, 45 bat lagunek osatu genuen bidaia. Batez beste, egunean zortzi ordu ematen genituen arraunean; egia esatearren, oso gogorra izan zen, baina oso ondo pasatu genuen eta merezi izan du.

G. Gorputzez ere ondo prestatuta joan behar, hortaz.

E. Bada, ez. Egia esan, entrenamendu saio batzuk egiteko asmoa geneukan, baina itsasontzia uste genuena baino beranduago amaitu genuen eta ez genuen entrenamenduetarako astirik izan. Esan bezala, oso gogorra izan zen horrenbeste orduan arraunean egin beharra. Baina abuztuaren 23rako Galiziara iristea geure buruari jarritako betebeharrak moduan hartu genuen; iritsi egin behar ginela esaten genion geure



«Bretoiek eta irlandarrek animatuta parte hartu dugu abentura honetan»

«Gure helburuetako bat itsasontzi tradizionalak berreskuratzea da»



buruari, eta horrelaxe izan zen, garaiz iritsi ginen-eta.

G. Egunero lehorreratzen zineten?

E. Bai, lehorrez zihoazenez planifikatzen zuten guztia. Bi furgoneta eta automobil bat eraman genituen. Eurek egiten zituzten erosketak, lo egiteko tokia topatu eta lehorrean egin beharreko guztia antolatu.

G. Paisaia zoragarriak ikusiko zenituzten, ezta?

E. Bai, izugarria izan da, Galizia aldean, batez ere. Oso ezberdina da, gainera, kostaldea itsasotik ikustea. Bestalde, izurdeak eta baleak ikusteko aukera izan dugu. Zoragarria izan da.

G. Ondo pasatu duzuela diozu, baina Galiziara ere pozik iritsiko zineten, ezta?

E. Bai, horixe! Gainera, sekulako harrera egin ziguten hantxe. Oso harrituta geratu ginen, ez genuen espero horrelako harrerarik. Bidaiaren berri zuten euskaldunak ere baziren, eta Galizian oporretan zeudenez, guri harrera egitera joan ziren.

G. Hurrengo bidaia nora?

E. Askok zorakeria dela pentsatuko dute, baina Galiziatik Jerusalemeko zeharkaldia egitea proposatu ziguten bretoiek eta irlandarrek. Dena dela, oraindik oso berde dago kontu hori. Orain egin dugun honek ere erokeria zirudien eta egin dugu, hortaz, hori ere egingo daiteke.<

Jon eta Toshack

Jon Errasti, beste bergarar asko bezala, oso **realzalea** dugu, gertutik jarraitzen du talde txuri-urdina. Jarraitzaile sutsua izanik, udako oporrak aprobetxatu, eta **Zubietara** joan zen Realaren entrenamendua ikustera abuztuan. Baina, ez zen entrenamendua ikustearekin konformatu: entrenamendu ostean **John Toshack** entrenatzailea agurtu nahi izan zuen, argazkian ikusi daitekeen moduan.



Otaño omendu zuen Lasai-Toki elkarteak

Lasai-Tokik 25 urte bete ditu, eta ekitaldi ugari ospatu dute. Joan zen egubakoitzean, esaterako, afaria izan zuten. Hantxe, **Ricardo Otaño** marrazkilaria **omendu** zuten. Berartek, Udalak eta Lasai-Tokik hainbat opari egin zizkioten; Xamatzekoek aureskua dantzatu zioten eta Alai taldeak ere bere omenez abestu zuen. **Fernando Moreno** Lasai-Tokiko presidenteari ere hainbat opari egin zizkioten bazkideek, urteotan egindako lana eskertzeko. Zorionak, eta ia beste 25 urte ere egiten dituen elkarte honek!

ARDATZA Brikolajea

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak eta heldulekuak
Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka, 4-behea
☎ 943 76 18 93

EDEL TAPIZDENDA

*Etzerako artikuluetan
aukerarik haundiena
eskaintzen dizugu*



**Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltzak,
edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

POL-POL Taberna

943 76 07 78



Ur-bide ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

CITROËN C5

Zure neurrira
egindako
modeloak.
Proba itzazu
Ion Autoak-en.



Citroën C5 Break BERRIA



EROSOTASUN ERABILERA
ETA SPORT ERABILERA



SATELITE BIDEZKO
NABIGAZIO SISTEMA



BAT-BATEKO BALAZTATZE
LAGUNDUA



ARGIEN PIZTE
AUTOMATIKOA



GASOLINA BERTSIOAK: 1.8i 16V, 2.0i 16V, 2.0 HPI, V6. TURBO DIESEL BERTSIOAK: 2.0 HDi, 2.0 HDi 110, 2.2 HDi 136.



ION AUTOAK

Amillaga, 36. Bergara. Tel. 943 76 47 49 / 73

**GILTZAK EGITEN
HASIZ GEROZTIK,
DEBAGOIENEAN
EZER EZ DA
BERNIN**



Giltza noiz asmatu zuten argi ez
badago, orok erabilera erromatar garaian

Giltza noiz asmatu zuten argi ez badago ere, erabilera erromatar garaian zabaldu zen.

XVI. mendeko dokumentuetan, dagoeneko, Debagoieneko sarrailagintzaren gainean aipamenak daude.

1906an, garai hartako Euskal Herriko lantegirik handienetakoa sortu zen: Arrasateko Cerrajereta.

Gaur egun, eskualdean, giltzak egiten eta sarrailagintzan bost lantegik dihardute eta 600 lagun ari dira lanean.

Lantegjok urtean 8.000 milioi pezeta inguruko salmentak dituzte.



Horrelako jakiak ikusita, ezin etxera esku hutsik bueltatu.



Altzasu elkartekoek egin zuten okela gisatu onena zapatuan.



Jokatu, jaun-andreak, oparia ia segurua da-eta!



Martiriorik ez, baina danborrak beti bezain ozen zapatuan.



Erreileno eta tostoien kofradiakideen kapitulua domekan.



Nagusiek bezain fin, txikienek danborrada polita egin zuten.

Ze ondo pasatu dugun San Martinetan!

Bukatu dira San Martinak, baina hortxe ditugu argazkiak lagun, jaie-tan egindako ekitaldiekin gogoratu eta errepasotxo emateko. Zapatu goizean, jendez lepo izan ziren San Martin plaza eta Seminarioko patioa. **Nekazari produktuen azokak** beti izaten du jarraitzaile asko, baita irabazleak ere. Barazkien atalean, Martuteneko Olatxo baserriko Jose Manuel Zabalegik eraman zuen lehen saria, Antzuolako Lapatza baserriko Tomas Larrañagak bigarrena eta Berrizko Bolungarai baserriko Santos Duñabeitiak hirugarrena. Bestalde, herriko sari berezia Mercedes Urienek eraman zuen. Fruten atalean, Kontxi Izagirre antzuolarrak jaso zuen lehen saria, bigarrena Sonia Isas gernikarrak eta hirugarrena Jose Lonbide aretxabaletarrak. Lore moz-tuei dagokionez, Uberako Begoña Arteaga izan zen irabazlea, eta

gazten sailean, Maria Angeles Iñurrategi zeraindarra izan zen lehenengoa, Legazpiko Arantxa Segurola bigarrena eta Angiozarko Begoña Abarrategi hirugarrena.

Okela gisatu lehiaketari dagokionez, zazpi talde aritu ziren lehian: lehenengo saria Altzasu elkarteko Mariano Agirre eta Agustín Badiolak jaso zuten, bigarrena Umore Ona elkarteko ordezkariak eta hirugarrena Aize Pe elkartekoak.

Horrez guztiaz gain, **amnistiaren aldeko mugimenduak jarritako tonbolak** ere San Martinetako giroa berotzen lagundu zuen, baita **nagusi eta umeen danborradek** ere. Bestalde, **kofradiakideek** ere egin zuten kapitulua, eta hainbat herritako kofradiakideak dotore ikusi ahal izan genituen herriko kaleetan.

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Aintzane Irizar **Publizitatea:** Mireia Larrañaga **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate, Gari Bragado **Telefonoa:** 943 76 03 97 **Faxa:** 943 76 29 77.

Antzuolako hamabostekaria, 85. zenbakia. 2001eko irailaren 21a.

Balio katastrala berritu dute

Antzuolako Udalak kontribuzioa kobratzeko tipook ere aldatu ditu

Gipuzkoa osoko balio katastralak berrikusi eta berritu ditu Gipuzkoako Foru Ogasunak, baita Antzuolakoak ere. Berritasun horren gainean informazio zabalak eskaini dute komunikabideek; guk, Antzuolako egoera zelan geratu den bildu nahi izan dugu *Kontuolan*.

Orain arte indarrean izan diren balio katastralak duela 25 urtekoak ziren. Orduetik hona, lehen aldiz errebisatu ditu balio horiek Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horrek esan nahi du Gipuzkoako ondasun higiezinaren balioa berritu egin dela. Aldundiak ondasun horietako bakoitza baloratzen du. Baina zertarako erabiltzen da balore hori? Besteak beste, gero, udal bakoitzak balio katastral horren arabera kontribuzioa kobratzeko tipook ezartzeaz.

Kontribuzioa balio katastralaren gaineko tipoa da. Aurten ere, urtero egiten duen moduan, tipo horiek ezarri ditu Antzuolako Udalak. Aurten, baina, irizpide ezberdinak erabili ditu Udalak: balio katastralaren berritasunak kontuan hartuta ezarri ditu tipook.

OREKA BILATU NAHI IZAN DU UDALAK Diputazioak egindako berrikuspenarekin, ondasunen balioa asko hazi da, higiezinaren merkatua hartu duelako erreferentzia moduan; aurten ordaindu dutenaren bikoitza edo hirukoitza ordaindu beharko lukete herritarrek datorren urteko aurrera, Udalak tipook aldatu izan ez balitu. Igoera hori ekiditeko, diru kopuru jakina batzea erabaki dute, iaz kobratutakoari Kontsumo Prezioen Indizea gehi-



Balio katastrala berritzeaz gain, 2001etik aurrera, tipook berrituko dituzte.


tuta. Horrela, horren arabera kontribuzioa kobratzeko tipook ezarri dituzte.

Bestalde, balio katastral berriak kalkulatzeko, herria bi eremutan banatu du Gipuzkoako Diputazioak: etxebizitza erabilerarako lurzoruak eta industria erabilerarako lurzoruak bereiztu egiten ditu, eta bakoitzean dauden ondasunek ere horren arabera balioa hartzen dute.

Gauzak horrela, Udalak banaketa hori kontuan hartu eta bi tipo ezarri ditu: etxebizitza erabilerarako lurzoruak dau-

den ondasun higieziari %0,177ko tipoa ezarri die, eta industria erabilerarako lurzoruak %0,28koa, hain zuzen ere.

Azkenik, esan beharra dago urrian Gipuzkoako Diputazioaren notifikazioa jasoko dutela herritarrek. Notifikazio horretan aditzera emango diete bakoitzaren ondasunen balio katastral berria eta, era berean, horren arabera 2002. urtean ordaindu behar izango duten kontribuzio berria.



Berrikuspenak ekarriko lukeen igoera handia ekiditeko, tipook egokitu ditu Udalak




Matz-Erreka, 40 urte lanean

Antzuolako ekonomiaren oinarria industria da; enpresa garrantzitsuak ditugu herrian, horietako bat Matz-Erreka. 1961eko irailan ireki zuten Matz-Erreka bost lagunek. Bergaran sortu zuten enpresa, Masterreka kalean, hain zuzen ere; hortik datorkio bere izena. Ordutik, noski, asko aldatu da, izugarri hazi da eta hazten jarraitzen du, gainera: aurren bertan pabilioi berria zabalduko dute Mexikon, Queretaro estatuan, hain zuzen ere.

Torlojuak egiten hasi ziren 5 lagun duela 40 urte. Torlojuak eta antzerako piezak. Ordutik hona enpresak izan duen garapena, baina, izugarria izan da. Esan bezala, Bergarako Masterreka kalean egon zen Matz-Errekaren lehendabiziko tailerra. Baina, segituan alde egin zuten handik; urtebete pasa baino lehen, Labegaraietara joan ziren. 1967. urtetik, berriz, Antzuolan dago enpresa hori, orain dagoen tokian, hain justu. Ordurako 50 langiletik gora zituen. Mikel Agirrezabal Matz-Errekako gerenteak azaldu digunez, hasieran, finkapen piezak egiten hasi ziren, torloju eta antzerako pieza mekanizatuak.

Bigarren negozioa, plastikoarena, 1968an sortu zen. Kasualitatez hasi ziren plastikoaren negozioan. Izan ere, plastikozko piezak egiteko makinak ekoiztea zen euren asmoa, baina, azkenean, eurak hasi ziren plastikozko piezak egiten. Hurrela, zapatendako takoiak egiten hasi ziren. Urte dezentetan aritu ziren, gainera, takoiak egiten. Handik urte batzutura, 70 hamarkadan, altxariak apaintzeko plastikozko moldurak ere egin zituzten.

1970etik, bestalde, MCC kooperatiba taldean sartu ziren. Berrizaleak nonbait, eta 1982an hirugarren negozio bati ere ekin zioten Matz-Errekan: atek automatizatzeko sistemak egiten eta saltzen hasi ziren. Urte horietan guztietan gorabehera handiak izan arren, hiru negozio hauek mantendu dituzte, bai torlojugintza, bai plastikogintza, eta baita automatismo-gintza ere. Aldaketa sakonak egon dira, baina hirurekin jarraitzen dute.



Azken sei urteetan 150 langile izatetik 275 izatera pasatu da Matz-Erreka.

«80ko hamarkada amaieran eta 90eko hasieran enpresaren planteamendua aldatu genituen», azaldu digu Mikel Agirrezabalek. Negozio bakoitzaren kudeaketari autonomia handia ematea erabaki zuten, bakoitza bere aldetik indarberritu eta sendotu nahian. Berrikuntzaren aldeko apustu sakona egin zuten, eta esan dezakegu gaur egungo Matz-Errekak ez duela garai hartakoarekin zerikusirik. Negozio bakoitzak merkatuetan daukan kokapena asko aldatu da, eta baita enpresa bera ere: azkenengo urteetan bereziki, izugarri hazi da. Hona hemen hazkunde hori erakusten duten pare bat datu:

1996an 150 pertsona ari ziren lanean Matz-Errekan; gaur egun berriz, 275 bat dira. Neska-mutil gazteak joan dira sartzten, eta horrek, gazte kutsu berria eman dio Matz-Errekari. Beste datu esanguratsu bat fakturazioarena da, azken bost urte hauetan, bikoiztu egin dute eta. Hazkunde gainera hiru negozioetan izan da.

HIRU NEGOZIOEKIN, AURRERA

Esan bezala, plastikozko takoiak egiten hasi ziren; plastikozko piezak egiten jarraitzen dute, baina orain, zehaztasun handiko piezak egiten dituzte. Pieza txikiak, pieza teknikoak eta "konplikazio

ANTZUOLA

Apaintetak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Billegia: 943 78 70 40

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatutako eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GOROSTI Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Iazko maiatzean inauguratu zuten pabilioi berria.

handikoak" egiten dituzte, eta akatsik txikiak ere arazoak sor ditzake. Batez ere, tresna elektrikoendako eta autoendako piezak egiten dituzte. Lan gogorra da, baina badirudi ondo doakiela, gero eta hobeto, gainera. Bezeroak ere ez dituzte nolana hikoak: Copreci, Fagor, Robert Bosch, Mercedes Benz, edota General Motors, batzuk aipatzearen.

Torlojuak hasiera-hasieratik ekoizten dituzte; esan bezala, horrexetan hasi ziren, hain zuzen, duela 40 urte. Hala ere, urteekin, negozio hori ere izugarri aldatu da. Hasieran torloju eta antzerako pieza txikiak egiten zituzten. Gaur egun, berriz, finkapen elementu handietan espezializatu da Matz-Erreka, torloju eta antzerako pieza handi eta berezietan. Produktioaren erdia baino gehiago Europara bidaltzen dute.

Haize errotendako, ibilgailu handiendako eta eraikuntzarako torlojuak egiten dituzte. Curriculum polita dute, gainera; askok ez dute jakingo eraikin entzutetsu asko Matz-Errekako torlojuen jositako dagoenik; esaterako, Madrileko Dorre Bikiak, Bartzelonako Palau Saint Jordi edota Anoetako estadioa.

Azkenik, atea automatizatzen dituzte. Hau da enpresaren negozio berria, 1982. urtean hasi ziren eta. Bi ate motarako automatizazio sistemak egiten dituzte: pertsonak pasatzeko atearako, supermerkatuetan, aireportuetan, ospitaletan, eta abar, egoten diren ate automatikoak, batetik. Eta bestetik, autoen pasabideetarako: garaje eta txaletetako atearako, adibidez. Azken urteetan, gaine-

ra, asko hazi da negozioa, eta pabilioi berria egin dute; iaz inauguratu zuten.

KALITATEA ZAINDUZ

Matz-Errekak enpresaren filosofia eta lan egiteko era aldatu zituenean, kalitateari berebiziko garrantzia eman zion. Bezeroek ere halaxe eskatzen dute. «Merkatuaren esijentziari eta kompetentziari aurre egiteko, gainera, kalitatezko ekoizpena behar-beharrezkoa izaten da», Mikel Agirrezabalaren esanetan.

Horretan ere ez du hutsik egin Matz-Errekak; izan ere, daukan hiru negozioetan ISO 9000 kalitatearen ziurtagiria dauka. 1995ean, lehendabizikoa lortu zutenean, Euskal Herri mailan plastikoaren sektorean ziurtagiri hori lortzen zuen lehendabiziko enpresa izan zen Matz-Erreka. Iaz, berriz, QS 9000 ziurtagiria lortu zuen, ISO 9000 baino dezente esijenteagoa dena.

Aurten irekiko dute Mexikon plastikozko piezak egiteko lantegi berria

MEXIKORA BEGIRA

Matz-Erreka hazten ari denaren beste seinale bat da Mexikon pabilioia jarriko dutela laster. Aurtengo urtea bukatu baino lehen inauguratzeko asmoa daukate. Queretaroko estatuan jarriko dute pabilioi berri hori. Plastikoaren negozioa zabaltzeko aukera emango die lantegi berri horrek. Hemendik bi lagun joango dira Mexikora (bat joan da dagoeneko), hango langileei irakastera, eta proiektuaren arduradun bezala. Datorren hilean edo hurrengoan, dagoeneko, piezak egiten hasteko moduan egongo direla espero dute, Mikel Agirrezabal gerenteak azaldu digunaren arabera. Etorkizunari begira, pozik azaldu dira Matz-Errekako arduradunak. Agirrezabalaren esanetan, «duela urte batzuk genuen kapazitatea ez zen orain daukagun adinekoa, ezta gutxiagorik ere, beraz, aurrera begira itxaropentsu egon gaitzke».

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA

609 157 131

BERGARA

609 150 164



Z Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Irune Ibarra, grafologoa

«Idazkerari esker, pertsonaren nortasuna ezagutu daiteke»

Datorren hilean, urriaren 20an hasita, grafologia ikastaroa eskainiko du Irune Ibarra markinarrak. Irune psikologoa da, eta grafologian espezializatuta dago. Idazkeraren bitartez jendearen nortasuna, jarrera edota harremanak ezagutzen ikasteko aukera paregabea izango da.

Zelan sortu zitzaizun grafologiarekiko zaleatasuna?

17 urte neuzkala, grafologiari buruzko liburu bat ikusi nuen, eta interesa piztu zidan. Ordurako, oso argi neukan psikologiako ikasketak egin nahi nituela, eta oso teknika kuriosoak iruditzen zitzaizidan grafologia.

Zer da grafologia?

Idazkerako eta marrazkien ezaugarriak aztertuz, idatzi duenaren nortasuna ezagutzeko teknika da. Egia esan, mediku, psikologo eta filosofo asko ibili izan da urte askoan idazkera eta izakera lotu nahian. Batez ere, alemanez, frantsesez eta italieraz, gauza asko dago grafologiaz idatzita.

Adibidez, bikien idazkerak ikusi eta euren arteko antzekotasunak aztertzeko erabili izan da; baita, epileptiko eta psikopaten izakerak aztertzeko ere. Bestalde, idazkera adimenaz ere lotu izan da, eta horregatik, hasieran, adimen test moduan ere erabili zen.



Irune Ibarra psikologoa eta grafologoa da.

Gaur egun zertarako erabiltzen da?

Batetik, lehen esan bezala, nortasuna ezagutzeko erabiltzen da: adimena, borondatea, zelan lan egiten duen eta abar. Eta osasun fisiko eta psikologikoa ere jakin daitezke idazkeraren bitartez. Nortasun azterketetan oinarrituta, berriz, bikoteen bateratasun eta batera ezintasuna jakin daitezke, baita taldean zelan moldatzen den pertsona... Bestetik, peritajeak ere egiten dira grafologiari esker.

Nik, batez ere, hezkuntzaren arloan lan egiten dut. Urte askoan ibili naiz UEUn eskolak ematen, eta baita Antzuolan emango dudantako antzerako ikastaroak eta hitzaldiak eskaintzen ere. Bestalde, grafoterapeuta naiz; grafoterapia da idazkerako ezaugarriak aldatuz, nortasunaren hainbat ezaugarri aldatzeko teknika.

Edozeinek ikasi dezake grafologia?

Bai, bai; pazientzia pixka bat eta borondatea izanez gero, ikasi daitezke grafologiaren teknikak. Noski, ez da urtebetean edo bi urtean ikasten den zerbait, baina konstantzia eta gogorekin, edozeinek ikasi dezake. Antzuolan emango dudantako ikastaroa oinarritzkoa izango da; 10 orduan ezin da asko saskondu, baina hasteko, oinarritzko ezagupenak hartzeko ikastaro interesgarria izango da.

■ ■ ■
Edozeinek ikasi
dezake grafologia,
borondatea
izanez gero
■ ■ ■

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

GAILUR

taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotuak •
- Moketak eta tapizatuak •

Katean 11 urte daroia lanian eta Levisan ibili zan, 12 urtez. Danetik egitten dau: piezak montau, erremintak plastifikau... 43 urte dauzka, eta oso ezaguna da, gora eta behera ibiltzen da-eta bere automobil automatikuakin, Microcar-arekin.

Automobillakin egindako bidaiarik luziena?

Eltziegoera. 97 kilometro dare haraino.

Zenbateko abiadura ibiltzen zara?

50-60 km. orduko. Auto illarak egitten ditud askotan, Arrasatera bidian, batez be.

Multarik jarri dotsue sekula?

Ez, sekula be. Eta bi urte eta piku daroiat automobillakin.

Zenbat kilometro egin dozu?

27.350.

Asko kontsumitzen dau?

100 kilometroko lau litro gasoil.

Aberixarik euki dozu?

Ekaiñetik konpontzen daukat. Berriro hartzeko kriston goguakin nago.

Nora juatia gustatzen jatzu?

Angiozarrera ixa egunero joaten naiz. Gorlara, Asentziora eta Arantzazura askotan.

Zirkulaziño seiñale danak errespetatzen ditudu?

Bai. Danon moduan despisteren bat be izan dot inoiz...

Auto-estopian jendia hartzen dozu?

Bai, gaztiak, batez be. Itxura txarra daukenak ez ditud hartzen.

Ze auto gustatzen jatzu gehixen?

Mercedes berrixa eta monobolumenak.

Lanbidez aldatzekotan?

Altos Hornosen lan egingo neuke gustora.

Denbora librian ze egiten dozu?

Pasiau, musikia entzun eta kalia ibilli.

Musika talde bat?

Jose Luis Gabilondo

Gozategi anaiak gustatzen jat.

Parrandazalia zara?

Nere edadiakin, gero eta gutxiago...

Janari eta edari bat?

Mariskua eta alkohol bariko edarixak.

Udazkena gustatzen jatzu?

Bai, paisajian kolore politak egoten die.

Kolore bat?

Urdiña, Bergarakua.

Mendizalia zara?

Bai, Gorbeara, Aralarrera eta Txindokira sarri juaten naiz, lagunekin.

Etxeko lanetan laguntzen dozu?

Bai, amari laguntzen jat, erosketak eta fregaua egitten.

Telebisiño programa bat?

Ana Rosa Quintanarena.

Filmik gustokuen?

El coloso en llamas. Bost aldiz ikusi neban bere garaixan, Donostian.

Zein aktore gustatzen jatzu?

Cary Grant eta Julie Andrews.

Kirol bat?

Igeriketa, futbola...

Toshacken aldekoa zara?

Bai, Clemente baiño gehixago gustatzen jat.

Zeinek irabaziko dau Vueltia?

Belokik.



Trikiti eskola

Noiz:

Urriaren 1etik
ekainaren 22ra

Non:

Kartzela zaharrean

Egunak:

Panderoa: astelehen eta
egubakoitzetan

Soinua: martitzen,
eguzten eta zapatuetan

Prezioa:

Panderoa: 1.900 PTA hilean

Soinua: 2.650 PTA hilean



Eskulan ikastaroa

Noiz:

urriaren 1etik
maiatzaren

27ra arte

Non:

Kartzela Zaharrean

Ordutegia:

15:30etik

17:00etara

**Prezioa urte
guztirako:**

5.000 PTA Jarduneko
bazkideek; 6.000 gainontzeoek

Informazioa:

Jardun elkarte (Kartzela zaharra)

943 76 08 19 / 943 76 36 61



Futbito txapelketa astebukaeran hasiko da Labegaraietan

Astebukaeran Labegaraietako futbito txapelketaren XVI. ekitaldia abian jarriko da. Hemenik maiatzera bitartean astebukaerero partiduak egongo dira Kiroldegian. Aurtengo denboraldian 31 talde izango dira lehian, hiru multzotan banatuta.

A multzoan honako talde hauek neurtu beharko dituzte indarrak: Biciprecision Igartua, Bar Ugarte, Komando Piperrak, Agirrebeña jatetxea, Torrekuua, A Ze Flaxa, Eri, Amilox, Mongatxurrak, Kanpazar Harrobia eta azken orduan izena eman duen beste talde batek. B multzoan, berriz, Vacalouras, Artekale pizzeria, Etengabe, Bar Bedarreta, T.H.T., Txipiron, Amoskibar, Irubide jatetxea, Bar Canalejas eta Aterpe izango dira eta, azkenik, C multzoan, Timofonica Team, Bildurbarek, Bayer, Errotagain, Dedo Pafarru, Patxaran Team, Aluminios Kresala, Artusamak, Ortzi eta Pagomendi taldeak.

Txapelketa, liga modura jarraituta jokatu da eta multzo bakoitzeko lehendabiziko bost taldeek eta seigarren onenek jokatu dute ligako play-offa. Ko-



Errotagain taldea izan zen liga eta kopako txapelduna aurreko denboraldian.

pa txapelketa talde guztiek jokatu dute, kanporaketa bidez. Antolatzaileen arabera, maiatzean izango dira liga zein kopako finalak, eta txapeldunek superkopa jokatu dute jarraian.

BERRIKUNTZAK ARAUDIAN

Araudiari dagokionez, bi aldaketa izango dira joan zen denboraldiarekiko: atezainak ezin izango du eskuko sakearekin zelai erdia gainditu, eta bestalde, area barruan, atezainak zein jokalariek, gehienez, bost segundotan eduki ahal izango dute baloia.

Asteburuko partiduak

ZAPATUAN (KANPOAN)

09:30. Amilox-Torrekua	Kanpazar Harrobiak
10:30. Kanpazar Harrobiak-Bar Ugarte	Biciprec.Igartua
11:30. Biciprec.Igartua-Komando Piperrak	Pagomendi
12:30. Pagomendi-Bildurbarek	Komando Piperrak
16:00. Bar Bedarreta-Bar Canalejas	Eri
17:00. Eri-A Ze Flaxa	Artusamak
18:00. Artusamak-Dedo Pafarru	A Ze Flaxa

DOMEKAN (BARRUAN)

09:30. Txipiron-Amoskibar	Agirrebeña jatetxea
10:30. Agirrebeña jatetxea-Mongatxurrak	Vacalouras
11:30. Vacalouras-Etengabe	Irubide jatetxea
12:30. Irubide jatetxea-T.H.T.	Etengabe
16:00. Timofonica Team-Bayer	Patxaran Team
17:00. Patxaran Team-Aluminios Kresala	Aterpe
18:00. Aterpe-Pizzeria Artekale	Aluminios Kresala



ANCEPEK
homologatutako
diploma

Ile apaintze eta estetika zentruak
Kalitatezko irakaskuntza

MATRIKULA ZABALIK

DAMKAR'T
Eibar. 943 12 15 18

Agirrebeña

JATETXEA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

Labin eta Raquel Llamas garaile zapatuko krosean

Luis Angel Labin kantabriarra eta **Raquel Llamas** donostiarra izan ziren zapatuan Bergaran jokotutako San Martin herri krosaren XII. ekitaldiko irabazleak, senior mailan. Labinek 27 minutu eta 40 segundo behar izan zuen ibilbideko 9.120 metroak betetzeko eta Llamasek, aldiz, 31:25eko denbora egin zuen. Junior mailan Eloy Crespo bergararrak lortu zuen garaipena, eta infantil mailan Borja Jurado gaztetxo bergararrak irabazi zuen, Neitsen Olabarraren aurretik. Alebinetan Markel Blanco arrasatearra izan zen lehena, Antxon Ugalde eta Ander Plazaola bergararren aurretik. Benjamin mailan bi kategoria bereiztu ziren: B kategorian Tamara Crespo kantabriarra Borja Elkoroberezibarri nagusitu zitzaion helmugan, eta benjamin A mailan, berri, Markel Sagasta bergararrak irabazi zuen. Azkenik, beteroetan, A kategorian,



Madrazo, Labin eta Veleda zapatuko krosetako lehen hiru sailkatuak.

Jesus Crespo kantabriarra nagusitu zen eta B kategorian Agustin Benitez zumaragarra izan zen irabazlea.

Guztira, 112 partaide izan ziren lehen kategoria guztietan. Gipuzkoako Federazioko epaileek euren haserrea azaldu zuten probaren amaieran, partaideek jende artean korrika egin behar izan zutelako ibilbidean zehar, Barrenkalean batez ere.

XAKEAN GOMEZ NAGUSI

Bestalde, Mario Gómez bilbotarrak irabazi zuen domekan jokotutako Bergara Hiria nazioarteko xake txapelketa irekia. 80 partaide bildu ziren. Gómezek 6 puntu lortu zituen, bigarren Oleg Korneev errusiarra (5,5 puntu) sailkatu zen, eta jarraian Roberto Cifuentes holararra eta Felix Izeta. Bergarako onena Jose Ortega izan zen.

'Piti' Unamunok dimisioa aurkeztu du

"Piti" Unamuno Bergara-KEko presidentek dimisioa aurkeztu du, BERRIGARAK eguenean jakin ahal izan zenez. Antza denez, zuzendaritzarekin izandako desadostasunak izan dira dimisioa aurkezteko arrazoia. Hala ere, BERRIGARAK ez du lortu Unamunorekin berba egiterik. "Piti" Unamunok urtebete eskas eman du presidente karguan.

Nagusientzat mendi irteera

Gorla Alpino eta Pol-Pol Mendizale Taldeak datorren irailaren 30ean Pipaon-Lagranera joateko egun erdiko irteera antolatu dute. Irteera goizeko 7:00etan egingo da Frontoitik. Txartelak Pol-Pol tabernan, 1.000 pezetaren truke.



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

OHARRA BEZEROEI:

Ramon Maria Liliko
bulegoan arazo teknikoak
ditugunez, aldi baterako
bulegoa BELANBIDE KALEAN
izango dugu. Ongi etorri, denok.

Jokabidearen psikologiako kabinetea

Barne-herstura, depresioak, estresa, ume eta nerabeen arazoak, azterketa psikologikoa.

Ramon M. Lili 2, lehena
Ordutegia: 15:00-20:00
943 765 939 Faxa. 943 762 572

AGENTEA




IRAEGI
ASEGURUAK

Telefonoak: 943 76 23 30
eta 943 76 41 54

Faxa: 943 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera:
9.00-14.00 eta 15.30-19.30




ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

San Martin txirrindulari saria jokatu da domekan

Lokatzak antolatuta, domekan, hilaren 23an, San Martin txirrindulari sariaren XXXVI. ekitaldia jokatu da, 10:00etan hasita. Irteera San Lorentzon egingo da, eta helmuga ere bertan izango da. Proba 12:45 aldeira amaituko da, antolatzaileen kalkuluen arabera. Partaideek 108 kilometro egin beharko dituzte eta mendate bakarra izango dute, Asentzioko gaina, hain zuzen, helmugatik zortzi kilometrora. Beraz, eskalatazailerik aukera ezin hobea izango dute Asentzion esprinterrak atzean uzteko. Mikel Larrañaga Lokatzako presidentearen hitzetan, «proba nahiko irekia da eta oso zaila da faboritoak aurreratzea. Ez da proba luzea, eta mendate bakarra egotean, normalena Asentzio erabakigarria izatea litzateke. Ikusi behar zer nolako borroka dagoen».

San Martin saria Lehen-dakari txapelketarako proba puntuagarria da, eta lehen



Partaideek 108 kilometroko ibilbidea izango dute domekan.

urteko eta bigarren urteko 120 bat txirrindulari izango dira Bergaran. Tropela Bergara, Osintxu, San Prudentzio, Oñati, Soraluze, Elgoibar, Angiozar, Elgeta eta Uberatik igaroko da.

Lokatza taldean ibilitako hainbat txirrindularik parte hartuko dute domekan: CDR taldeko Jon Mendizabal, Xabier Plazaola, Igoitz Gabilondo, Xabier Aranguren eta Zigor Alberdi eta Ulma-Cegasako Ander Agirre.

ZALEEN AFARIA

Bestalde, zapatuan, hilaren 22an, herriko txirrindularitza zaleen afaria izango da Zuloa elkartearen. Quebrantahuesos zaleentzako proban inoiz parte hartu dutenei afarira joateko deia egingen zaie. Zapatuan bertan, arratsaldean, bizikletan bueltatxo bat emango dute. Afarira joateko interesa duten guztiek Biciprecision Igartua dendara jo dezakete (943 76 11 21 telefonoa).

Eskola kiroleko ikastaroa

Debagoieneko eskola eta kirol zerbitzuek eskola kiroleko begiraleentzako ikastaroa antolatu dute. Irailaren 27an saio teorikoa izango da kultura etxean, 18:00etatik aurrera, eta irailaren 28an eta 29an saio teoriko-praktikoak egingo dira Labegarrietako Kiroldegian. Izena ematea Kirol Zerbitzuan egin daiteke irailaren 25era arte. Argibideak jasotzeko: 943 77 91 67.

karteldegia

FUTBOLA

Bergara-Union Txiki

Lehen mailako gazteak
Zapatua. 11:30. Ipintza

Bergara-Mutriku

Preferentea
Zapatua. 17:00. Agorrosin

Bergara-Soraluze

Bigarren mailako kadeteak
Domeka. 10:00. Ipintza

Bergara-Añorga

Ohorezko mailako kadeteak
Domeka. 11:30. Ipintza

ARREGI

Eraikuntza materialak

Biltegia Tellerian, Labegarrietan.
Tf. 943 76 27 93

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1. 943 76 02 57



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



INMUEBLE ETA FINANZTA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behe
943 76 21 80 / 943 76 06 37

FRANTSES IRAKASKUNTZA



Mizpildi 3, 1. ezkerre • BERGARA

2001-2002 ikasturtea

FRANTSESA - FRANTSES KOMERTZIALA

AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

UMEENDAKO FRANTSESA


Ikastaroaren hasiera:

urriaren 1a

Izena ematea: irailaren 28ra arte

Informazio gehiago: 10:00-12:00 eta 18:00-20:00

943.76.30.55



Ikastaroak

Zeramika

Enkuadernazioa

Eskulanak

Irakaslea: Ana Orgaz

Martitzen eta
eguztzenetan

18:00-20:00

Izena ematea: Ardatza.



Tailaketa

Irakaslea: Ascensio Esnaola

Martitzen eta eguztzenetan 18:00-20:00

Izena ematea: Ardatza.

Gantxilloa

Bainikak

Kurutze puntua

Irakaslea: Tere Agirrezabal

Eguztzenetan

15:00-17:00 eta 18:00-20:00

Izena ematea: Igarza.



Bolilloa eta bainikak

Irakaslea: Idoia Ibañez

Martitzenetan 15:00-17:00 eta 18:00-20:00

Izena ematea: Igarza.

Ikastaro guztiak

Koldo Eleizalde

2-an emango

dira eta urrian

hasiko dira

Informazioa:

943 76 35 99

(eguztzenetan

10:00-13:00 eta

16:00-20:00)



bonofotoa

Zein urtetan eraiki zuten etxe hau?
1956an, 1966an ala 1976an?

galde debalde

1. Nork zaharberrituko ditu Trinitateko komentuarien fatxadan dauden armariak?


- A- Eduard Beautiful-ek
- B- Diputazioko adituek
- C- Eudald Gillamet-ek

2. Zein izen ipini zioten Galiziaruntz espediziokoek erabili zuten itsasontziari?

- A- Albaola
- B- Bartolo
- C- Bartolome

3. Zenbat argazki egongo dira ikusgai Pol-Pol argazki taldeak antolatutako erakusketan?

- A- 40 argazki
- B- 240 argazki
- C- 60 argazki



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

Aurreko aleko saria **Jose Astigarragaren** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Joseri!
Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Bidekurutzetan**
Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak:

Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Baque
kafe ehotua 250 gr.
(naturala edo nahastua)

205 PTA!
(1,23 e.)

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Nazioarteko hainbat argazkilariren lana ikusgai gaurtik aurrera kultura etxean

Gipuzkoako Argazki Elkartearen fondoko argazkiez osatutako erakusketa da, eta ikusgai izango da irailaren 30era arte. Nazioarteko hainbat argazkilariren berrogei lanek osatzen dute erakusketa, nazioarteko lehiaketetan urrezko edo zilarrezko domina jaso duten lanek, hain zuzen ere.



Irudian, Flor Huyers belgikarraren *Landscape lana*.

Pol-Pol argazki taldeak antolatu du erakusketa. Argazkiak Gipuzkoako Argazki Elkartearen fondokoak dira. Fondoetan 240 argazki inguru dituzte; horietatik guztietatik, berrogei aukeratu dituzte Pol-Pol argazki taldeko kideek eta Bergarara ekarri erakusketa antolatzeko. Aukeraketa horretan tradizioak eta azken ten-

dentziek partekatzen dute espazioa, elkarri aurka egin barik. Gaiak ere hainbat dira, zuri-beltzean eta koloretan, baina guztiek dute gauza bat berdin, Pol-Pol argazki taldekoen ustez: edertasuna, hain justu.

Bestalde, argazkilarien jatorria zabala da: Frantzia,

Belgika, Espainia, Italia, Ukraina, India, Austria, Finlandia... Gainera, erakusketako argazki ia guztiek urrezko edo zilarrezko domina jaso dute Gipuzkoako Argazki Elkarteak urtero antolatzen dituen nazioarteko argazki lehiaketetan. Eta horixe bera da, hain zuzen

ere, argazki elkarteak egiten diharduen fondoan iturrietako bat: nazioarteko lehiaketetako argazki sarituak, alegia. Horrez gain, egileek zuzenean emandako argazkiak ere badira fondo horretan. Helburua, hala ere, ez da argazkien jabe izatea, mundu osoan ezagutzera ematea baizik.

III. ARGAZKI TOPAKETAK

Gaur, egubakoitza, irekiko dute erakusketa, baina ez da ekitaldi bakarra izango. Izan ere, Pol-Pol argazki taldeak Euskal Herriko Argazkilaritza Konfederazioaren III. Argazki Topaketak egingo ditu bihar, zapatua, eta arestian aipatutako erakusketa topaketen egitarauan dago aurrez ikusita. Topaketak 09:30ean hasi eta egun osoan luzatuko dira.

Azkoitiarrak garaile Moises Azpiazu dantza txapelketan

Jon Ander Azpitarte eta **Eduarne** Azpitarte anai-arreba azkoitiarrek lehen saria irabazi zuten joan den egubakoitzean Moises Azpiazu zenaren omenez jokaturako Bikote Nagusiendako XVII. Dantza Suelto Txapelketan.

Bigarren saria Asier Ena

eta Maite Lazkano bergararrak erdietsi zuten, baita Moises Azpiazuren sendiak emandako Bergarako bikote onenarendako sari berezia ere.

Txapelketan hamabi bikote aritu ziren lehian. Horietatik hiru, Bergarakoak.



Jon Ander eta Eduarne Azpitarte, lehiaketako irabazleak.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Pintura eta marrazketa

eskolak ematen ditut

943 76 40 14
Eduarne



Txirrindulari promesak, 1980

Bergara Txirrindulari Elkartea eta Lokatza izan dira txirrindularitzaren bultzatzaileak herrian. Gaztetxoaren artean egindako lana benetan azpimarragarria da, eta oraingo asteko erretratua horren adibide garbia duzue. Argazkia 1980. urte inguruko Pazkoetakoa duzue eta atzealdean, eskualdean, lehengo postetxearen bulegoa antzeman daiteke.

la pedaletara iritsi ezinik eta orekari justu-justuan eutsiz, hor dugu gaztetxo talde bat kasko eta guzti, lasterketa hasteko zain. Antza denez, San Martin plazatik irten, Bidekurutzetan (Leturia harategian) buelta hartu eta Artekalen eta Barrenkalen zehar berriro plazarainoko ibilbidea prestatu zuten Bergara Txirrindulari Elkarteko kideek. Antza denez, Aitor Rementeria nagusitu zitzaien

bere lagunei, esprintaren argazkirik lortu ez dugun arren. Argazkiko gaztetxoek 12-13 urte bitartean izango zituzten orduan. Honako hauek dira, ezkerretik eskumara: Asier Aranguren, Iñigo Igartua, Peli Muxika, Aitor Rementeria eta Xabier Legorburu. Atzerago: Ignacio Juaristi eta Gurutz Arrieta.

Argazkia: Jabier Areitio



**Manufacturas
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikuluak
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Zuri Beltz margoak


Barnealde eta kanpoaldearen erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



GUREN

INTURAK

Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01

BADATUZ BERRIRO MULTIESKAINTZAK!

Bonardi monturak familia guztiarentzat.

Distantzia guztietara ondo ikusteko.



**BONARDI
MONTURAK**
4.150 PTA.
(24,94 €)

LENTE*
PROGRESIBOAK
19.500 PTATIK
AURRERA
(117,20 €)



MONTURAK + KRISTALAK*
60 URTETIK
GORAKOENTZAT
8.900 PTATIK
AURRERA
(53,49 €)

MONTURAK + KRISTALAK*
UMEENTZAKO
8.900 PTATIK
AURRERA
(53,49 €)



* Eskaintzaren balioa ± 4 ESF. ± 2 CIL lente txuriendako da.
Eskaintza hauen balioa 2001/10/31 arte da.

MULTIOPTICAS

LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575 - **BERGARA**

J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995 - **ARRASATE**

J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988 - **ORDIZIA**

Bergarako merkatariorok, adi!

Zuen iragarkia
GOITBn agertzeko
aukera paregabea!

Spotak • Miniespotak • Teletestua • Gaininpresioak

Deitu 943 76 03 97
telefonora!

Goitb
Goiena Telebista

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara. **Diseinua, kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu...

Jakina, zurekin pentsatzen.

FAGOR 
Sukaldeko altzariak



JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldea

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.